- 1951 1952 1949 1950
- 1962 1956 1953 1954 1955
- 1966 1963 1957 1958 1959 1960
- 1967 1968 1964 1965 1960
- 1971 1972 1969 1970
- 1975 1976
- 1977 1978



Día a día, golpe a golpe, se va haciendo la vida de los hombres; día a día se va fraguando la historia de los pueblos. Un año ha pasado ya desde que se celebró, con gran participación popular, la primera Semana Cultural Vasca de Herrera... ¡un año cargado de acontecimientos!

Sí, en Herrera algo se está moviendo. Somos un cuerpo vivo, tenemos nuestra historia, nuestra pequeña gran historia. Tenemos una vida llena de acontecimientos festivos, culturales, laborales, sociales...

El equipo responsable de este boletín ofrece a todos los herreratarra - los de dentro y los de fuera- esta rápida crónica, repaso acelerado, de un año en la historia de nuestro barrio.

Abril, 21-27. CONTRA VIENTO Y MAREA y a todo gas se hace a la mar la primera Semana Cultural Vasca de Herrera. A falta de mejores ayudas, el pueblo se encarga de subvencionarlas en su mayor parte. Conferencias sobre el ayer y el hoy de nuestro pueblo con asistencias que van de las 200 a las 300 personas. Exposición retrospectiva de fotos de Herrera, exposición del libro vasco. Día del niño en la plaza (unos 1.500 niños ¡ahí es nada!). Festival y Euskal Jai. Revista.

En total habrán pasado de 100 personas las que han aportado su trabajo y colaboración personal. Nota destacada se merece la juventud.

Como clausura, y fuera de programa, los organizadores celebran una cena de amistad (que cada uno paga de su bolsillo, ¡no vaya nadie a sospechar!). Caras cansadas, pero rebosantes de satisfacción. Animos, planes para el año que viene, "lepean hartu", recuerdos para los ausentes y... aurrera mutilak!

Mayo. FRENADO a un interesante proyecto. De la Semana había salido el plan de poner en marcha, paso a paso, una asociación de vecinos del barrio. Pero llega la noticia del estado de excepción que pesa sobre nuestra provincia y se prefiere esperar...

Maiatza, ... ERREKETAK MODAN. San Juan sua behar baino goizago etorri zaigu aurten Herrerrara. Inork (?) nola ez dakiela, "Dami" denda suak irentsi du egunsentiko ordu txikiak lekuke triste direla. Kasualidades? Kortozirkuito bat? Herriak badu bere iritzia...

Junio, 14. NOTICIA TRISTE. Pasando de lucero a lucero, en el local social de Mendi-Zaleak, un chico resbala y cae a la calle, muriendo en el acto. El accidente es sentido y comentado con tristeza.

Ekaina, 15. BAINA GUZTIOK BATERA ... Ikastolako ikasle, guraso eta laguntzaileak Aralarren biltzen dira: 700 bat herrerratar jai eta anaitasun girean.



Junio, 19-23. HERRERA YA ESTA EN FIESTAS. Llegan los "San Luises". La gran novedad de este año: por primera vez se han unido todas las sociedades para organizar los festejos del barrio. "Estamos convencidas de que esta unión entre Ikastola, Itzala, Sallekaak y nuestro Club se reflejará no sólo en las Fiestas sino en ocasiones posteriores", dice el saludo del Programa. Hala hedi!

El Club Deportivo Herrera, "La Sociedad" como todos la llamamos, celebra Bodas de Plata: cena conmemorativa, homenajes, insignias... y presencia del herrerratarra alcalde de San Sebastián. La gente comenta: "Que se note, que se note Sr. Alcalde".

Exito del Txabol Sotoa, alegría en las tamborradas de los

niños y los no tan niños. Nace y se viste de large la Fanfare de Itzala. Hura zen, humorea, humorea !

Uztaila. JAIO ETA HIL. Jean den urtean parrokiak kolonia batzuk eratu zituen ~~barriko~~ haurrentzat. Aurten ez dira egiten. Beharrik ez? Zailtasunak? Eta jendeak lagundu al du?

Julio, mediados. ¡QUE VIENE EL COCO! Siguen los pirómanos anónimos haciendo de las suyas. Esta vez una vez anónima amenaza por teléfono la veladura de la casa Agur. Pero los vecinos no se quedan parados. Focos, guardias nocturnos. Avisos a "quien corresponda". El Ayuntamiento se hace eco, otros organismos no tanto. La noticia recorre las revistas de España entera. Y, al final, vuelve la tranquilidad.

Agosto. Y SIGUE. Sí, siguen los accidentes en la carretera que sube a Bidebieta. Este año han sido cinco los muertos al ser atropellados en dicha carretera. Más tarde, por Diciembre, se instalarán unos semáforos a la altura de la parroquia.

Ah, y también sigue inclinándose la farola de la plaza de Hermera, nuestra pequeña Torre de Pisa particular. ¿A quién le dará cuando caiga del todo?

Septiembre. A ESPERAR OTRA VEZ. Este era el mes destinado a programar las actividades del barrio durante el presente curso. Pero las reuniones previstas no se celebran. Vivimos días tensos. Huelgas. Manifestaciones en la plaza. Entrenamientos inesperados de cross. Y una gran tristeza. Lesa pesada como una tumba cae sobre los angustiados corazones de los herreratarras. Noiz arte Jauna?



Urtia. ETA HERRIAK ARNASA BERRIA hartu nahi du. Bizitza aurrera doa, eta aspalditik mamituriko asmo bat egia bihurtzen da. Herrerako Koroa

martxan jartzen da. Lehen entsaieak: 15-20 lagun. Gehiago behar dira. Ez da nahikoa "herria, herria" oihukatzea: elkarteak, ekin-tzak dira gorputz horren zainak.

Urria. MENDI PISTAK barrio barruan behar ez ditudugula ohartu bide da Udal etxea. Altzako karreterari zolu berria ematen diote. Bazen garaia. Baina...eta besteak?

Eta plazako farola behera bidean jarraitzen du. Ner jarri azpian?

Octubre. POR FIN EN MARCHA. Comienzan las reuniones que llevarán a la formación de la tan deseada Asociación de Vecinos. Las diversas sociedades apoyan y se van preparando los estatutos. No falta quien trabaje. Algunos, los de siempre; otros, nuevos.

Noviembre. TENEMOS BIBLIOTECA otra vez. Esta entidad de tan precaria y lánguida vida vuelve a resucitar. Ha nacido ya varias veces para morir tanseguida. No tiene apoyos ni ayudas...¿Hasta cuándo vivirá en esta ocasión?

Noviembre, 30. CACOS en la ikastola. Se llevan dinero y estropean objetos. Solidaridad de la gente. Semanas mas tarde fenómeno semejante en las Escuelas Nacionales de Romualdo de Toledo.

Abenduak, 24. OLENTZAROA sekula baino alaiago etorri zaigu gure haurora. Goizetik ikastolake haurrak izan ditu lagun barrioz barri. Herre ra osan. Arratsaldean ehunen bat lagun nagusi — neska eta mutil — ibili dira Olentzaroren inguruan. Bada ensaietan etab. lan franko egin duenik. Hola hartzen badugu, etorriko da berriro ere gure haurora Olentzaro zaharra.



Diciembre, 24. PINO Y TODO tenemos este año en el pequeño parquecito de la plaza. Más bien parece un símbolo en miniatura. El espontáneo coloca el resto de la ornamentación: letreros

que sugieren "¿ y unas luces qué tal?" o "primer plan de iluminación navideña"....

Abendua, 25. JAI GIROA PLAZAN. Erdi lo, begietan resaka, jendea antzerki bat ikusi gogoz plazaruntz doa. Lizardi euskal poeta nagusienaren lantxo bat aurkezten dute gure Gurutzek prestatua.

Diciembre, 25. CONCURSO de JAIOTZAS. Es la cuarta edición. En la misma plaza se hace la exposición y entrega de premios. Hay que reconocer que esta actividad sale un poco desdibujada estos dos últimos años. Pocos concursantes, escasos premios. ¿ Será que no la apoyamos lo suficiente?

Abendua, 28. HERRERAKO CROSSA OIARTZUNEN. Famatua izan da beti gure Crossa. Nonahitik etortzen ziren karrikalariak. Baina gure urbanismo ero eta itsu honen legeek -- a kapitalista bihotz gabeak!-- Oiartzuna bultzatu dute. Lehen aldiz altabozetatik erderaz zein euskaraz entzun ahal izan ditugu infemazioak, Euskaraz ke hizlaria oporrek bukatu berriak dituen gure Txate.


Diciembre, 30. RADIO POPULAR en Herrera. No es la única vez que viene para informar sobre el estado de las carreteras etc... Como sigan viniendo, van a tener que ampliar el presupuesto, pues no les va a llegar ni para mantenimiento de sus coches.

Diciembre, 31. FANFARE EN NOCHEVIEJA. No paran quietos estos del Itzala y en cuanto hay ocasión se lanzan a animar el barrio. Luego organizarían un baile de fin de año.

Enero, 1. ATERPE bila zebilen zenbait jende. Se inaugura para "ancianos de más de 21 años" el lokal Aterpea. Lugar de reunión, de encuentro, de descanso tras el trabajo, de relax. Todavía no se ha organizado su funcionamiento, pero se sabe que está abierto al barrio entero... Ah y la novedad: televiser en color.

Enero 7,8,9. MIL y un problemas tiene planteados la clase obrera, mil y una reivindicaciones. En estos días los obreros de MILL se han encerrado y logran la subida de un 15 %.

Urtarrila, 19. SAN SEBASTIAN BEZPERA geratik ospatu ohi da beti Donostian. Aterpean ere afaritxo bat egiten dute zenbait herrerratarrek. Gero Donostiara bueltatxo bat eta, lehengo antzera, karrerak eta larriak.



Enero, 20. NUESTROS NIÑOS EN LA TAMBORRADA per primera vez. Los niños de la ikastola — primera ikastola que lo hace — desfilan en la famosa y conocida tamborrada infantil donostiarra. Ilusiones sustos, nervios... pero todo sale bien. Destaca el bonito estandarte, diseño de Serafín, y el ritmo conjuntado de tambores y barriles. Enhorabuena a los niños y a los no tan niños (Juanito y Javier).


Otsaila, 4. BAINA EZTARRIZ SANO GABILTZA ta kanta mahi dugu gogez. Gal-tzear zegoen aspaldiko ohitura berritu egin dugu aurtan. Gabonetan baino abeslari gutiago, baina baziren halare nahikoak. Neskak guti samar. Ateratako dirua aurtengo Aste Kulturalerako zen.

Otsaila, 28. LUR-SAIL bat erosi ahal izateko, dirua ematea erabakitzen dute ikastolake gurasoek. Lizeoaren lehen pausok emanak dira dirudi. Altza, Intxaurren eta Herrerako ikastolak batera joddute enpresa honetan.

Martxo, 14. EN EL CONCURSO "SAN SEBASTIAN Y SU HISTORIA" ha resultado ganador el Colegio San Luis de Herrera. Animo chavales!

Frente a la farmacia hay un poste de cemento que en su día sirvió al tendido eléctrico del trolebús y que hoy no se utiliza. En él hay un cartel

que avisa parada a los autobuses de la Renfe que hoy no funcionan. Lo curioso es que está en medio de la acera, lo cual hace que los peatones, y más aún los coches de niño, tengan que invadir la calzada. ¿Hasta cuándo este decorativo inútil?



.Noizko trolebusen geltokietan a terpetxoak?

.Eta ambulatoia? Edo behintzat "cuarto de soccer" bat?


.Y puestos a soñar ¿la casa municipal de cultura? ¿la sala de reuniones — no hay una en todo el área de Herrera—? ¿la biblioteca? ¿ la sala de exposiciones?...

¿Terminará la crónica del año que viene con los mismos TEMAS de SIEMPRE? Ah... herreretarra, si tuvieras que elegir, ¿ elegirías al alcalde que tenemos?





"Borda-zar" nork ez du ezagutzen? San Markos alderako bidean nor ez da pasa base-  
rri honen ondotik? Ba, hangoxeak ziren Jo-  
se eta Juan Cruz Zapirain, bertso jartzaile  
on eta famatuak.

Jose horren historia kontagarria da oso. Alargun gelditu zen, bederatzi seme-  
ren aita. Gero, gerratea etorri zenean, hamaika gora-  
behera ibili ondoren, lau seme gartzeleratu  
zizkioten. Eta bi han bertan, Ondarretan,  
hil. Beste biek, bide berdinetik joateko a-  
rriskuan zeudelarik, kezka bat zuten biho-  
tzean: nola eman aitari han gertatutakoaren  
berri? Eta bihotzeko larria nolabait aska-  
tzeko edo, honako bertsook bidali zizkioten  
bere aita bertsolariari ( Errenderiako Ma-  
kazagak eginiko edizio batetik jaso ditugu  
guk).





OSU  
ZUAT  
K



7  
AN  
S  
A  
K

**1**

Bertsu batzuek jarriko ditut  
 Jendiari adierazteko  
 Kulparik gabe sartu giñuztela  
 Giltzarian epoteko;  
 Ori gertatu biar zuenik  
 Inork etzuen usteko  
 Ez det biotzik gertatu dana  
 Aita, zuri esateko

**2**



Negar malkuak saltatzen zaizkit  
 Gertaeran oroitzen,  
 Lau anaitatik kulparik gabe  
 Giltzape ortan bi ill ziran,  
 Nola deitu giñuzten laurak,  
 Zori txarrez arratzen,  
 Geroztik ezta pozik agertu,  
 Aita, gure biotzian

**3**

Lengo fameli zoraqarriya  
 Orain ez dago zurekin,  
 Bi fusilatu, bi giltzarian  
 Daude, beste bik aldegin,  
 Beratzi seme asi dituzu,  
 Orain triste irurekin,  
 Jainkuak ala nai zuen eta  
 Etzazu negarrik epin.

**4**

Peregrinuak bezela gatoz,  
 Egun bateko egoitza,  
 Kia bezela aitutzen baita  
 Gure munduko bizitza  
 Egin biarrak atzera utzi  
 Engañaturik gabiltza,  
 Jaunaren eskutik etortzen dira  
 Osasuna eta gaitza

**5**

Zer da mundua? Zer alaijarri  
 Daukaqu au maitatzeko,  
 Gure biotzak zer billatzen du  
 Emen ondo bizitzeko?  
 Dana tristura dana negarra  
 Aberats pobrientzako,  
 Zoratzen ejon biar genduke  
 Mundu ontatik juateko

**6**

Bi anai maitek aldegin digu,  
 Jon dira emendik bestera,  
 Negarrak utzi eta betiko  
 Zerura irabaztera,  
 Laister guk pasa biar degun  
 Biria erakustera,  
 Orain bakarrik bagaude ere  
 Berriz al'alturko gera

7

Egun gutxrien aurria artu  
 Digute gure anayak,  
 Ayen ondora itzuli naidu  
 Gure biotzeko nayak,  
 Penak utzita igarotzeko  
 Zeruan egun alayak,  
 Noiz ez dakigu baño laister dek  
 Egingo digu artzayak

9

Zori oneko nere anayak  
 Joan diralako emendik  
 Pozik ez dagon mundu argal ta  
 Galdutakua ontatik  
 Zeruan daude beti gozatzen  
 Lagunduko digu andik,  
 Kendu itzatzute ~~zuen~~ maitiak  
 Bizi dira ta oraindik

8

Beti deika ementxen gaude  
 Jarririk gora begira,  
 Ayen animak pozez veterik  
 Arkitzen diran tokira,  
 Badirudi Jaunak esaten dula  
 Izar diztiren argira  
 Ni oso maite niñuten eta  
 Nerena etorri dira

10

An goyan dago zeru ederra  
 Atsegin guziz betia,  
 Mundu onetan asko sufrituz  
 Irabazten da joatia,  
 Jesusek berak bere eriyotzatz  
 Zabaldu ziquen atia,  
 Berriz ere an juntatuko da  
 Gure famili maitia.

11

Bi semek itzul egin dizute  
 Penetan emen utzita,  
 Pazienziya arzazu beti,  
 jaunak ala nai zuen ta  
 Jaunari semiak ematia  
 Oso pozgarri baita  
 Gaurtik aurrera egin zerade  
 Bi seme martiren aita.

# 12

Altza guztiyak ondo badaki  
Gure berri ikusiya,  
Kastigu au ez degula  
Obra txarrez mereziya,  
jainkuak berak bialtzen diqu  
Ar zaqun pazientziya  
Zeruan noiz bat kobratuko degu  
Nunduan irabaziya

# 13

Agur, o Aita etzaitzazu aztu  
ein itzatzu otoitzak,  
jainkuak berak arindu ditzan  
Gure naijabe zorrotzak  
Ortik urruti aldendu dira  
Gure biotzeko pozak  
Agur egiñaz, laztandu aibat  
Maitatzen zaitun biotzak

# 14

Barkaziya eskatzen dizut  
Gure gaizkille danentzat  
gaizki esaka ta gezurretan  
Aritu zaizkitzuentzat  
Gure biotzak etzala oyentzat  
Ayek eta qu izaingaitezen  
Betiko Jaun Onarentzat

# 15

Agur, aita, ta agur anayak,  
yañera perientiak  
Agur ezagun ongille danak,  
Ontoika zauten tristiak,  
Preso gaude ta ezin etorri  
Gure seride maitiak,  
Agur, ba, agur, ta ondo bizi  
Libre zauzten guztiak.

# GAU IKASTOLAREN

## INGURUAN

Bada 9 urte Herrerako Gau Ikastola sortu zela.

Leku aldaketa asko izan ditu, ikastola berarekin, eta gaur Herri Ametsa ikastolan bertan aurkitzen da.

Bere izatearen arrazoia zein den somatzea erraza daiteke: Herrian dagoen euskararen beharra nabarmena baita; asko eta askodira euskara ezagutzen ez dutenak, beste zenbait berriz, nahiz eta ezagutu euskaraz mintzatzen ez direnak edo analfabeto direnak gure hizkuntzan. Beraz, Gau Ikastolaren helburua, urte-urteroz euskaldunberri talde bat plazaratzea da. Ez da ez, helburu makala!

### AURTENGO GORA BEHERAK.

### AHALEGIN ETA EZINAK

Aurten, 120 ikasle 12 taldetan banaturik ditugu.

Ikaslen fitxak aztertuz ikusten dugu, badirela 8 urtetik hasita 45 urterakoak ere, ikasle eta langile, bai herreratarrak baita beste herritakorik ere.

Euskerazko klase hauk lau mailatan dira, ezer ez dakitenak, lehenetik zerbait ikasia zutenak, nahiko entenditzen zutenak, eta azkenik bazekitenak. Gehienak lehenbiziko mailan ari dira, honuz gero zenbaitek nahiko aurreratua izango du euskara, noski.

Herrerako gau ikastolan euskara batua zabaltzen da, edo ta ahaleginak egiten dira behintzat. Zergatik euskara batua? Ba, arrazoiak agerian dira: Gaztelania ikastera ekiten dion batek, ez du andaluzia edo leonesa ikasten, gaztelania batua eta ondotoxoa batua baizik. Gainera komunikabide guztietan erabiltzeko, euskara batua baino zer egokiagorik? Euskara batuan egindako idaz lanak eta ere guztietako saiok, bestalde, errazago zabalduko eta gehiagoengana helduko dira. Bide batez, batasun hori dela-ta euskara bera indartuko da eta galtzeko arriskuak uxatuko ditu.

Irakasleentaz hitzegiterakoan gauza bat esan nahiko genuke, alegia, aldaketa handia izan dela lehenengo urtetatik honetara. Pentsa dezagun aurreko urtetan, ikastolan barruko andereño eta maisuak izan direla batez ere, eta aurten gehienok herriko gazteak direla. Honen ondorio bezala pentsa genezake, zenbait kasutan irakasle on prestaketa edo formazioa ez dela egokiena izango. Batez ere, irakasle asko sortu diren bezala sortuak izan direla baitakigu, hau da,

beharraren pederioz bultzata. Izan ere, hainbat ikaslerentzat ira kaslerik ez zen eta.....

## IRAKASLEEN IRITZIAK

Metodologiari buruz esan beharra dago, irakasle askoen iritzia ez datzala liburu edo metodo konkretu, sakon eta on bat erabiltzean, eta horrela batzutan metodo guztietatik zerbait hartzen dute. Hala ere, bakoitzak norbere gida-liburua aukeratzen du, batzuk "Euskara Hire Laguna" eta gehienok "Euskalduntzen", eta "Alfabetatzen" sailan ez da metodorik jarraitzen. Hona hemen, gai honetaz menbait irakasleren iritzia:

----Nik Altunaren metodoa erabiltzen dut, baina neri okurritzen zaiz kidan ideiak erasten dizkiet. Dena nahasian erabiltzen dut. Ahal den eta praktikoan gerta dadin irudiz eta keinuz baliatzen naiz. Bestalde, galdera asko egiten diet ikasleei. Itzulpenik egin gabe, saiatu arazi egiten ditut. Praktikotasun honek ez du adierazi nahi, gramatika beharrezkoa ez denik.

Jeneralki esango dizuet, metodoa onartzen dudala, noski: baina nere erabilkera interesagarria iruditzen zaidala oso. "Euskalduntzen" liburuak ez ditut asko ezagutzen eta ezin dut iritzirik eman.

----Guk, teoria azkar bukatzeko asmoa dugu, euskaraz hitzegiten lehen bait lehen hasteko. Orduan, ikasleek parte handia hartuko dutela klasean uste dugu.

Bestalde ikasleen erantzunetan fijasen bagara, pozik omen dabilta denok. Gainera klaseari nahiko garrantzia ematen diotela dirudi.

## HABLAN LOS ALUMNOS

Creemos que al hablar de la Gen Ikastola, era muy importante ó tal vez necesario, contar con la opinión de los más directamente interesados, los propios alumnos. Para ello, se les formularon tres preguntas cuyas respuestas reunidas transcribimos a continuación:

*por qué van a aprender euskera*

— Me encuentro entre los nacidos en un País, donde por unas "causas" hay una cantidad de personas que aún sabiendo, no hablaban en su idioma.

Eso repercute en una descendencia, donde naoen otra cantidad de personas que aunque ahora quiera hablar no puede porque no sabe.

Entonces sin saber hablar nuestro idioma, te encuentras que no vives una cantidad de cosas que tenemos en el País. Y pienso que como vasco me veo en la obligación (qué menos) de aprender mi idioma y que algún día pueda expresar mis sentimientos en mi idioma. Y de esta forma no tener que obligar a los demás a hacer el sacrificio de tener que emplear otro idioma para entendernos.

— Aparte de que sea nuestro idioma, merece la pena conservarlo, por ser una de las mejores riquezas como pueblo.

---Voy a la ikastola indudablemente para aprender el euskera mi idioma étnico y natal, ya que con ello respondo a unas necesidades propias y vitales como persona y como pueblo.

---Aprendo euskera por-que es mi ideal y en el cual se basa el pueblo.

---Voy a la ikastola porque quiero aprender euskera, ya que creo que todos deberíamos aprenderlo para hacerlo nuestra lengua oficial, y así resurgir al Pueblo Vasco.

### *formación que se les imparte*

---Estoy conforme por su formación y por su manera de darnos la clase, se adapta a la mentalidad y al nivel nuestro.

---Soy de la opinión de que hay de todo, ya que he conocido:

a) Personas que no sabían dar clases, que utilizaban, giros y expresiones que el alumno no era capaz de coordinar ni entender, debido a sus escasos conocimientos esto es, se expresaban de manera tal que parecía que el alumno debía tener una base concreta.

b) Personas que sabían penetrar en la circunstancia y categoría idiomática de alumno.

### *ideas nuevas que proponen*

---Yo creo que se aprendería bien, intercalando las clases con conferencias, lectura de libros, diálogos, porque creo que sería una manera de soltarnos a hablar.

---Pienso en la posibilidad de crear unas cassettes, donde poder ir aprendiendo en todas las horas libres en el sentido de machazar y hacer oído. Pienso que puede ser un buen método para dar el paso Ikastola-Kalea.

---No seguir de manera tan exclusiva el texto, es decir, llevar el método de enseñanza de una manera más técnica y propia para el aprendizaje del idioma "hablado". Dejar la gramática para aprender un euskera de "oído", aunque sin duda alguna se necesitaría la misma, pero de un modo exclusivamente secundario. Mucho diálogo.

TALDE BAT

beharraren pederioz bultzata. Izan ere, hainbat ikaslerentzat ira kaslerik ez zen eta.....

## IRAKASLEEN IRITZIAK

Metodologiari buruz esan beharra dago, irakasle askoen iritzia ez datzala liburu edo metodo konkretu, sakon eta on bat erabiltzean, eta horrela batzutan metodo guztietatik zerbait hartzen dute. Hala ere, bakoitzak norbere gida-liburua aukeratzen du, batzuk "Euskara Hire Laguna" eta gehienok "Euskalduntzen", eta "Alfabetatzen" sailan ez da metodorik jarraitzen. Hona hemen, gai honetaz menbait irakasleren iritzia:

----Nik Altunaren metodoa erabiltzen dut, baina neri okurritzen zaiz kidan ideiak erasten dizkiet. Dena nahasian erabiltzen dut.

Ahal den eta praktikoan gerta dadin irudiz eta keinuz baliatzen naiz. Bestalde, galdera asko egiten diet ikasleei. Itzulpenik egin gabe, saiatu arazi egiten ditut. Praktikotasun honak ez du adierazi nahi, gramatika beharrezkoa ez denik.

Jeneralki esango dizuet, metodoa onartzen dudala, noski: baina nere erabilkera interesagarria iruditzen zaidala oso.

"Euskalduntzen" liburuak ez ditut asko ezagutzen eta ezin dut iritzirik eman.

----Guk, teoria azkar bukatzeko asmoa dugu, euskaraz hitzegiten lehen bait lehen hasteko. Orduan, ikasleek parte handia hartuko dutela klasean uste dugu.

Bestalde ikasleen erantzunetan fijatzen bagara, pozik omen dabilta denok. Gainera klaseari nahiko garrantzia ematen diotela dirudi.

## HABLAN LOS ALUMINOS

Creemos que al hablar de la *Casa Ikastola*, era muy importante ó tal vez necesario, contar con la opinión de los más directamente interesados, los propios alumnos. Para ello, se les formularon tres preguntas cuyas respuestas reunidas transcribimos a continuación:

*por qué van a aprender euskera*

— Me encuentro entre los nacidos en un País, donde por unas "causas" hay una cantidad de personas que aún sabiendo, no hablaban en su idioma.

Eso repercutió en una descendencia, donde nacen otra cantidad de personas que aunque ahora quiera hablar no puede porque no sabe.

Entonces sin saber hablar nuestro idioma, te encuentras que no vives una cantidad de cosas que tenemos en el País. Y pienso que como vasco me veo en la obligación (qué menos) de aprender mi idioma y que algún día pueda expresar mis sentimientos en mi idioma. Y de esta forma no tener que obligar a los demás a hacer el sacrificio de tener que emplear otro idioma para entendernos.

— Aparte de que sea nuestro idioma, merece la pena conservarlo, por ser una de las mejores riquezas como pueblo.



---Voy a la ikastola indudablemente para aprender el euskera mi idioma étnico y natal, ya que con ello respondo a unas necesidades propias y vitales como persona y como pueblo.

---Aprendo euskera por-que es mi ideal y en el cual se basa el pueblo.

---Voy a la ikastola porque quiero aprender euskera, ya que creo que todos deberíamos aprenderlo para hacerlo nuestra lengua oficial, y así resurgir al Pueblo Vasco.

### *formación que se les imparte*

---Estoy conforme por su formación y por su manera de darnos la clase, se adapta a la mentalidad y al nivel nuestro.

---Soy de la opinión de que hay de todo, ya que he conocido:

a) Personas que no sabían dar clases, que utilizaban, giros y expresiones que el alumno no era capaz de coordinar ni entender, debido a sus escasos conocimientos esto es, se expresaban de manera tal que parecía que el alumno debía tener una base concreta.

b) Personas que sabían penetrar en la circunstancia y categoría idiomática de alumno.

### *ideas nuevas que proponen*

---Yo creo que se aprendería bien, intercalando las clases con conferencias, lectura de libros, diálogos, porque creo que sería una manera de soltarnos a hablar.


---Pienso en la posibilidad de crear unas cassettes, donde poder ir aprendiendo en todas las horas libres en el sentido de machacar y hacer oído. Pienso que puede ser un buen método para dar el paso Ikastola-Kalea.

---No seguir de manera tan exclusiva el texto, es decir, llevar el método de enseñanza de una manera más técnica y propia para el aprendizaje del idioma "hablado". Dejar la gramática para aprender un euskera de "oído", aunque sin duda alguna se necesitaría la misma, pero de un modo exclusivamente secundario. Mucho diálogo.

TALDE BAT

# LOS VECINOS

## SE ASOCIAN



No voy a hacer, en este artículo, un detallado estudio sobre las Asociaciones de vecinos. Y esto por dos causas fundamentales: primero porque mi intención no es esa; y en segundo lugar, como principal razón, porque mis conocimientos sobre el tema son prácticamente nulos.

Quiero hacer una simple constatación de un hecho que últimamente tiene mucho auge, y buscar alguna de sus posibles causas.

En una época en la que se habla de asociacionismo, partidos(?) etc. y al margen de causas de carácter más o menos sociológico, creo que actualmente se está produciendo un

cambio de mentalidad en el sentido de intentar pasar de una fase excesivamente intelectual a otra cuyo elemento primordial sea la acción.

Me estoy acordando de unas declaraciones que hizo Gorka Oteiza a un periódico donostiarra en las que, más o menos, decía que la juventud vasca actual estaba demasiado preocupada en acumular conocimientos pero que carecía de una creatividad ya sea artística o de cualquier otro tipo.

Creo que ya nos estamos dando cuenta de este peligro que señala nuestro gran escultor y que, hasta cierto punto, estamos viviendo un paso de una "civilización de la escritura" a otra "civilización del diálogo" que lleve a la acción.

Los jóvenes somos conscientes de que quizás debamos dejar de adorar un poco los papeles llenos de letras (libros), ya que la mayoría de las veces esos papeles no dicen nada más que cosas superficiales y porque lo que nos hacen estudiar no siempre coincide con lo que nosotros quisiéramos aprender. Pienso que cada vez se van a dar menos casos de hombres que se encierran en su despacho alrededor de grandes tomos que les sacian de cultura o que les llenen de erudición,


que también se da.

A mí, las asociaciones de vecinos me recuerdan el polo opuesto. Frente al aprendizaje individualizado, está el enriquecimiento que te dan las demás personas. Una asociación es ante todo, eso: una reunión de socios o amigos que quieren conseguir algo. Una asociación de vecinos es, en mi opinión, una sociedad de hombres que hablan, discuten y hasta critican... pero que también actúan con hechos que puedan conducir al bienestar de toda una comunidad.

Yo me imagino que de aquí en adelante ya no veremos en las puertas de nuestras casas a tanto vendedor de aspiradoras, máquinas de coser y hasta de libros sino que se nos presentará un hombre - o una mujer - invitan donos a que nos afiliemos a tal o cual asociación.

Uno, personalmente, igual se mete también en alguna asociación ( de vecinos, claro).

Txaparrri



J. Ramon Erauskin zein den ondotoxo dakigu euskara maite dugunok. Altzako Gazteluene baserrian bizi da baserritar jator eta idazle fin hau. "Aien garaia" liburu mardularekin sari eder bat irabazi berria du. Eta, Z- Argian irakurri ahal izan dugunez, Pragatik ere famatzen omen dute liburu hau. Lehengo bizi-moduko oroitzapen interesgarri asko biltzen ditu egileak liburu horretan.

Horixe duzu, irakurle, ondoren datorren artikulua idazlea. Txirritaren hiloba da eta hark asmatuak makina bat bertso paperean jarritako gizona.

Guk, hori dena gogoan izanik, urte haietako —Txirritaren urteetako— oroi-penak idatz zitzan eskatu genion. Herrerekin zerikusit duten oroipenak, noski. Eta bai finki bete gizonak gure enkargua! Oroipen gozoko artikulotxo polita idatzi digu.

## OROIPENAK



Gizonak berezkoa du, batez ere urteetan aurrera dijoan bezela, bere gazte denborako eta txikitako gauzak eta ibilerak gogoratzea. Badirudi gero baño gero geiago maitatzen dituela orduan ibillitako leku, bide eta pauso aiek; eta esan nezake neroni ere gauza bera gertatzen zaidala, bada ainbeste aldiz oroitzen naiz gure Herrera maitearentzat.

Ez da batere arritzekoa; triki-trikitandik, au da lenengo eskolara asi nintzanetik, araxe joaten bainintzan, egunean bi joan etorri eginaz, "Hermanos de la Doctrina Cristiana" zeritzaion eskolara, lau edo bost urtean; eta orain nola ez gogoratu garai artako ibillera eta leku aiek?

Zenbat jostaketa eta korri e-

giten genituan orduan gazteak, gaur "Plaza San Luis" deritzaion leku ortan! Bere aldamenetik igarotzen zan erreka txiki artan ere bai. Baña ez an bakarrik; baita eskolarakoan eta etxerakoan ere.

Bastanteko kuadrilla biltzen giñan Altza inguruko baserrietatik, eta, aietako batzuek elkartzen giñanean, inguruko sagar eta udareak pagatzen zuten, batez ere "Txingurri" eta "Larratxo" aldeko bidetik etortzen giñanean.

Zenbat korri, iju eta bulla ateratsen genion garai artako "Peruene" baserriko Jose "Borda"ri Ango bide- baztarreko zelaiko mizpirak eltzen ziranean, esan zekian geienak guretzat izaten zirela.

Geroago, eskolako ibillerak utzi eta lanera asi nintzanean ere, lenagoko tokixora joaten nintzan, garai artako Casares eta Salaberria'ren aroztegira, zerbait ikasteko asmotan; eta orrela, soldaduzkarako garaia arte.

Ondorenean ere, ez baizitzaidan ezbear luze bat gertatu, onenean gaur ere antxe biziko nintzan. Ain maitea izandu nuen Herrera txoko ori.

Gaurko aldean jende gutxi ibiltzen giñan angokaletan, danak ezagunak eta lagunak, alkar ikustean "Kaxo, jaunak!" eta "Kaxo, motell!" agurtuaz.

Gerostik, batez ere nere bakardadeko orduetan, askotan amets egin det leku orretsas. Baña beñere ez det ikusi izandu gaur dagoen eran, baizikan lenago zan beselako leku zabal eta lasai ura, alderdi geienetatik mendi berde eta alai inguratua, eta bere oien egaletan zeuden baserri ederrak berari begira zituela.

Bi bidek ebakitzen zuten erditik, trenbideak eta kamioak, eta

errekatzu batek trabeskatu gero kamio onen azpitik sartzeko; azpitik berriz, "topo" edo "frontera" deitzen zaion tunel luze bat ere bai, bere geltoki edo estazioarekin.

Bi bide oien artean beste etxe batzuek eta bi baserri ziran: bat "Peruene" eta bestea "Herreriya". Atzeneko an, gaur "El Nido" dagoen leku ber-berean, eta uste degu "Herreriya" ortatik datorkiola gaurko HERRERA izen ori.

Orain aitatu ditugun bi bide oien erdian, eta errekatxo eta baserrien artean, Don Luis Zapino jaunak, bere kotxearekin izan zuten ezbear batekin, bizia galdu zuten leku ber-berean, bere alar-gunak aren oroigarri jaso zituen eskola eta eliz edo kapilla polit bat.

Esan genezake eliz eta eskola oien bidez asi zala Herrera aunditzen eta indartzen.

Nola ez gogoratu ba, eskola aiek lendabiziko iriki ziranean egin genduen jai ederra eta, denbora aietan ain modan egonik, bota zituzten globo dotoreak?

Oiek eta beste orrelako moduko gauza asko bururatzen zaizkit Herrera'z gogoratsean.

Orregatik, orain noiz edo noiz or barrena pasatzen naizenean, galde egiten diot nere buruari:

Nun dira garai artako "Txingurri" inguruan barrena, bide ondoko urritz eta sasi artetik, "pill-pill" soñu alai ura atereas, ain ur garbia etortzen zan errekatxo ura? Nun dira onen inguruan, birigarros puntan kantari ainbeste aldiz ikusten genduen, makal luze haiek? Baña an bakarrean ez; baita kamioaren ondoko baserri "Bentabia", gero "Artakoz" eta orain "Gaistarro" deitzen zaion

artan ziran arboladi aundi aieta-ko txori-kanta pozgarriak ere.

Taberna batsuek ere bazituen oso ezagunak, batez ere "Lapur-trulo" eta "Patraman-ene", gaur "Huizi" deitzen zaiona.

Bertako nagusia oso bertso zalea zan, eta Pedro Maria Otaño zisurkildarraren lagun aundia; eta, nere osaba Txirritak esan izandu duenez, ara zer gertatu zitzaion.

Gau batean, Pedro Mari bertsolari ospetsua eta Txirrita, biak garai artako zaldi-kotxe batean Donosti'tik Errenteri'ra zijoaztela, bidean egarritu egin ziran eta taberna guziak itxiak, eta esan omen zuten Pedro Mari:

- Nik "Patraman" ezagun aundia det eta arrek irikiko digu.

Bere etxe parera iritxi zira-nean, kotxea gelditu eta jetxi eta atea dan! dan! dan! jo zioten; baña arrek irikitzen es.

Berriz ere jo zioten dan! dan! dan! eta kasorik es. Irugarren txandan ere bai, baña alperrik.

Orduan kamioaren erdira etorri eta bertso au bota omen zion Pedro Maria Otaño'k:

Beraz etxe onetan  
bizi da Patraman  
azkar aberasteko  
zer martxa daraman!  
Nik zerbait utzitzeko  
asmua neraman  
izorratu dadilla  
ez badu nai eman!

Ori entsun suenean, segituan ezagutu zuten Patraman'ek bere lagun Pedro Mari zala, eta leiora atera eta esan zien:

-Itxoin, Pedro Mari, itxoin,

bereala idikiko det eta!

- Es, presaka gabiltza!-erantzun zion; eta, kotxera igo eta "arre"! esanaz, aurrera segitu zuen.

Txirritak berak ere oso maitea izan zuten Herrera inguru ori.

Altza'ko "Arriaga" baserrian - gaur "Arri-Zar"- bere anaia eta illobakin bizi zala, askotan joaten zala esaten zuten ara, bere ezagunakin lagun-arte pixka bat egitera.

Gurekin "Gaztekuene'n" bizi zala ere, bein baño geiagotan esan izandu zuten:

- "Arriaga"tik bezin alde e-gon esker, emendik pozik joango nintzake Herrera'ra, nere ango ezagunakin broma bat pasatzera!

Bere azken urtetan ere, bertso-etara edo beste egitekoren batez inora joaten bazan, Herrera'ra biltzen zan etxerakoan, Peña jaunaren panaderira; bai-bazekien Altza inguruko baserrietako zaldikarruak an gelditzen zirala, bai ogia eta bai beste etxerako bear zituzten gauzak erosteko; eta len esan degun oietako karro batean etortzen zan Altza'raño.

Bein batean orrelako baten zai zegola, ara zer gertatu zitzaion:

Garai artan Herrera'ko "topo" edo "frontera"ko estazioko buruzagia, Naparroa'ko Goizueta'ko sekretarioaren semea zan. Sekretario onek, erri artako "Xardia" ditzen dioten gizon batekin, artu-eman aundiak izaten zituen; berak eramaten zizkan bere gora-bera guzietako garbitasun edo paperak.

Baña bein batean zerbait oker izan zuten eta asarretu ziran. Ainbesterraino asarretu ere. Baña

sekretarioari ezin ezer egin zio-  
la ikusi zuanean, bertsoak jarri  
zizkan.

"Xardia" Txirritaren lagun aundia  
baizan, egun batean etorri  
zan onengana; esan zizkan zer eta  
nolako gauzak jartzea nai zuen,  
eta Txirritak esan zion:

- Oiek aundiak izango dituk motell!

- Ez dik inporta! Ik jarri la-  
sai!

Ala, jarri zizkan bertso batzuek,  
oso txarrak, gaiztoak eta itsusiak;  
eta, beren billa etorri zanean,  
ala esan zion "Xardia" k Txirritari:

- Beajondaikela! Obek dituk bertsoak  
nik nai nituen bezelakoak!

Eta eraman, inprentatu eta erri  
danean zabaldu zituen gabas.


Sekretarioak, gauz au ikusi zuanean,  
kargu artu zion "Xardia" ri; baña  
onek dana ukatu egin zion, eta  
andikan egun batzuetara etorri eta  
berriz ere len baño aundiagoak  
jarri- erazi zituen.

Orduan juzgadura eraman zuen  
"Xarde" ori, baña an ere dana ukatu  
egin zuen. Eta onela kartzelan sartzeko  
edade aundia zuelako eta gañera  
gaixotasun bat ere bazuen, etxetik  
ateratzerik gabe utzi zuten aste bat  
edo bian; baña, andik atera zanean,  
ostera berriz eta aundiagoak jarri  
erazi zituen.

Lenago aitatu degun Herrera'ko  
estazioko "jefe" ori, ezin zan egon  
bere aitagatik orrelako gauzak aditzen;  
eta bein batean, jakindu zuanean  
Txirrita Peña jaunaren panaderian  
zegoela, etorri zan onengana eta  
esan zion:

- Nere aita Goizueta'ko sekretarioa  
da, eta "Xardia" esaten dioten gizon  
batek bertso izugarriak jartzen dizka.  
Zuk jarriko al zenizkioke bertso  
batzuek "Xarde" orri?

Orduan Txirrita gelditu zan ia  
zer erantzun etzekiela, eta, galdera  
batzuek egin eta zerbait izketan  
egin ondoren, esan zion andik egun  
batzuetara etorri zedilla gure  
etxera; an itzegingo zutela eta  
artuko zituela apunte edo kontu  
batzuek, eta orretan gel-



ditu ziren.

Baña guk orduan segituan "Xardia" ri  
abixatu genion, Ura etorri zan eta  
esan zion Txirritak zer gertatu  
zitzaien. Arek erantzun zion:

- Bai, motell, bai! Jarri bildurrik  
gabe! Oso gauza gaiztorik etzakela  
jarri, eta gañerakoan bildurrik gabe  
jarri!

Baña "jefe" ori etzan gure etxera  
azaldu.

Guk pentsatu genduen, edo Txirritari  
animo gutxi ikusi ziolako, edo bestela  
bateonbatengandik enteratu ote zan  
bere aitari

bertsoak jartzen zizkana Txirrita zala, eta orregatik izango zala ura gure  
etxera ez etortzea.

Herrera zer zan, ara nik esan,  
itz gutxitan eta labur,  
eskola ederrak, eliz polita,  
ta ainbeste pilla egur (1)  
Danak jua ziran, egin zioten  
bein batez, betiko agur.  
Bañan orduan ez zan ikusten,  
gaur ainbat gizon eta aur.  
Zer diferente arkitutzen dan  
HERRERA ATZO ETA GAUR.

(1) Garai artan ziranak: Compañía de Maderas, Fernando Nicolás Maderas,  
Lertxundi y Zaldua Maderas.

Jose Ramon Erauskin



# Jesus Mari Villasante

## «PIRRI»

Un nombre que dice algo en Herrera.  
Un montón de aficiones y un no parar constante. Inquieto polifacético que busca un sitio en el deporte. Podríamos decir que eso es, o ha sido, "Pirri" y prueba de ello es que aunque hoy se encuentra enmarcado en el equipo de balonmano, ha jugado a fútbol en playeros y en el Campeonato Vasco-Navarro, ha sido linier, boxeador, korrikalari, ciclista, remero y ha hecho incluso halterofilia. Pero además, algún año ha participado en la organización de las Fiestas del barrio.



G. M. - Si no te importa Jesús M<sup>º</sup>, vamos a empezar por lo de hoy, esto es por el balonmano y después iremos retrocediendo en el tiempo. ¿Cómo habéis quedado en la liga?

PIRRI.- Terceros, no está mal, aunque podíamos haber hecho más. Ten en cuenta que lo único que nos mueve es un poco de afición y algunas ganas de hacer ejercicio.

G. M. - Ya lleváis algunos años jugando...

PIRRI.- Concretamente yo, unos cinco años. Comencé en 1.970 o en el 71, no

recuerdo bien. Iba a desaparecer el equipo, no había dinero y aunque los equipajes los cedió alguna entidad comercial, las porterías por ejemplo las tuvo que pagar Eduardo Cuesta. La deficitaria economía del equipo hacía inminente su desaparición.

Por aquellas fechas, yo pertenecía como presidente a la comisión deportiva de "Batasuna". Fue entonces cuando nuestra comisión, se hizo cargo del equipo de balonmano y tomó el nombre de la sociedad. Posteriormente pasaron algunas cosas, la sociedad cambió de nombre y con la sociedad el equipo, de Batasuna a Sallekoak.

G. M. - Pero remontándonos aún más, ¿cuándo y cómo comenzó el equipo de balonmano de Herrera?

PIRRI.- Pues mira no lo sé, sólo te puedo decir que yo me vinculé bastante más tarde. De todos modos, puedo decirte que los primeros fueron "Chato" y su cuadrilla.

G. M. - Los tendremos en cuenta para otra ocasión. Pero hablemos de ti Pirri, de tus actividades, de tus...

PIRRI.- Tenía 16 años y entrenaba ya ciclismo. Al año, justo al terminar de pagar la bici, lo dejé. Por cierto, aquella bici se la compré al famoso Vidaurreta, ni más ni menos que por 3.500 ptas. y no creas que era "moco de pavo" para aquel entonces.


G. M. - Has sido también korrikalari, ¿no?

PIRRI.- Korrikalari, korrikalari... Bueno, digamos que he corrido con el Atlético de Herrera en la categoría de juveniles. En aquella época, se clasificó para el Campeonato de España Josetxo Aguirre "Chechín". En lo que a mí respecta, llegué dos veces segundo en San Juan y en Zarauz, otra vez tercero en Herrera y las demás del montón.



G. M. - ¿Y con los puños que tal? ¿Cómo empezó ese?

PIRRI.- Pues... con Almanzor, con él mismo que después empezó Urtain.



Imagínate que le dije a Taibo: "Vamos a ver como se entrenan en el gimnasio!" Y allá fuimos al Kursaal. A la semana siguiente ya estábamos entrenándonos, comenzamos un lunes y el sábado de la misma semana la primera pelea. Y eso no es todo, salí de trabajar a las 10 de la noche y la pelea era a las 10 1/2 en lo viejo de Amara. Como


no es de extrañar perdí.

G. M. - Pero las demás...

PIRRI.- Las demás gané! Al que me derribó la primera vez, lo tumbé después dos veces, pero al año me retiré. Mi padre no quería que continuara y después de cada pelea tenía siempre otra, de otro talante, en casa.

G. M. - ¿Qué más cosas has hecho?

PIRRI.- Aparte de correr con en Atlético de Herrera, he hecho halterofilia.



Esta sociedad tenía un sitio, un cuartucho, en lo que antes fué el "Centro de los Luises" y allí nos entrenábamos de vez en cuando.

He remado en batel con Trincherpe y San Pedro.

También y animado por Quirós, tras realizar unos cursillos montados por la Federación Guipuzcoana de Fútbol, llegué a ser linier junto con Estremo, este se encuentra actualmente en 3ª división. ¡Si llegué, ya llegué! En

cierta ocasión me metieron un paraguas por el trasero! Para entonces tendría unos 20 años.


En este momento, no estoy muy seguro de que lo que te estoy diciendo esté en riguroso orden. Qué quieres que te diga...se me amontona todo. He hecho tantas cosas y he estado metido en tantos sitios...! También he estado "fuera" de Herrera durante algún tiempo, pero he vuelto.

G. M. - Parece mentira que una sola persona y en tan poco tiempo pueda hacer tantas cosas.

PIRRI.- No se si te lo creerás, pero yo desde los 17 a los 20 años he sido la leche. Después de estar levantando pesas, igual me iba a correr o a hacer otra cosa. Eso, tras estar trabajando todo el día.

G. M. - Hoy ya no llevas aquel ritmo, no obstante continuas jugando a balonmano. ¿Qué opinión te merece el equipo?

PIRRI.- Llevamos dos años que no llegamos a primera por falta de luces e instalaciones, las cuales nos está prometiéndolo el Ayuntamiento desde hace tiempo. Pero se quedan en eso, en meras promesas.




Ahora vamos ha comenzar la "Copa" y estamos esperando que alguna firma comercial nos patrocine. Ya que además, queremos sacar para el próximo año un equipo juvenil o de tercera. Nosotros, ya nos estamos quedando viejos.

G. M. -Para terminar, ¿alguna anécdota?

PIRRI.-Hace dos o tres partidos, cayó al suelo un jugador del equipo contrario y un espectador herreratarra lo levantó. .Pues bien, nos echa ron una multa de 2.500 ptas. por saltar el espectador al campo.

G. M.



# II Concurso Literario Infantil

La presente edición, así como la del año anterior, ha sido bilingüe. Si bien, se ha cambiado de género para los mayorcitos, que les ha dado por la poesía o el verso, los mas pequeños han seguido con sus "cuentos".

Los temas eran obligados: en poesía "Nuestro Pueblo" = "Gure Herria", y respecto al cuento, su contenido debía de girar en torno al "árbol", la "mariposa y el "sol", ("zuhaitza, "tximeleta" eta "eguzkia").

Las mejores obras presentadas, así como sus autores en las distintas edades e idiomas, son las siguientes:

## POESIA

-Edad: 12, 13, 14-

### En castellano

Obras presentadas: 10

- 1º VIENTO VASCO - Juan Fco. Coira
- 2º NUESTRO PUEBLO - Jesús de la Granja

### En euskara

Obras presentadas: 31

- 1º NERE HERRIA - Alesander Esnal
- 2º GURE HERRIA - Amaia Alberro
- GURE HERRIARI BI BERTSO - J. I. Ioinaz

-Edad: 9, 10, 11 -

### En castellano

Obras presentadas: 5

- 1º NUESTRO PUEBLO - Iñaki Jáuregui
- 2º NUESTRO PUEBLO - Nieves García Nicolás

### En euskara

Obras presentadas: 39

- 1º EUSKALERRI - Oskar Hernando
- 2º GURE HERRIA - Mª Carmen Ioinaz

## CUENTO

-Edad: hasta 8 años

### En castellano


Obras presentadas: 0

### En euskara

Obras presentadas: 33

- 1º EGUZKIA, ZUHAITZA ETA TXIMELETA - Paula Jáuregi
- 2º EGUZKIA, ZUHAITZA ETA PINPILINPAUXA - Maitene Arrizabalaga.

De los trabajos que transcribimos a continuación, no todos coinciden con los primeros premios, sino que se han elegido para éste boletín aquellas obras que se han considerado, por diversos motivos, más publicables.



Oskar Hernando (10 urte)

## EUSKALERRI

EUSKALERRI  
NERE HERRI.  
GOGOR HARRI  
HERRI TTIPI.  
NERE BIZI  
EUSKALERRI.  
ZURE MENDI  
IKUSGARRI.  
KANTAURI  
ITSAS HANDI.  
NERE HERRI  
LABUR HIRI.  
EUSKALERRI  
NERE HERRI  
HERRI HANDI  
TA HERRI TXIKI.

## VIENTO VASCO

ÉGUZ

Viento, te acercas amenazador,  
con tus fuertes resoplidos.  
Viento, ¿me escuchas?  
Sé que vienes desde lejos, muy lejos,  
y es posible que quieras morir aquí,  
escuchando zortzikos, entre los vascos.

No, no me empujes, no te enfurezcas  
!deja ya de soplar!  
Escucha viento, tú que a veces me acaricias,  
¿porqué ahora eres tan cruel?  
antes jugabas con las hojas muertas,  
acariciabas la hierba del prado,  
mecías suavemente a los árboles.

!Viento!, deja la tierra vasca.  
Vete, no levantes olas,  
los arrantzales están pescando,  
y tú los vas a matar.

El viento no escucha,  
y mojó la tierra, la cubrió de blanco.  
Los arrantzales, no pesaron y algunos murieron.  
Y el viento murió aquí  
los vascos no cantaron zortzikos,  
pero el viento murió aquí.

Mas tarde vino la brisa,  
amiga inseparable de la tierra vasca  
y la brisa anunció el buen tiempo  
la brisa murmuraba  
y los vascos cantaban  
la brisa se movía ligera  
de caserío en caserío  
llevando las noticias de puerta en puerta  
porque la brisa es así,  
ligera, gracil, suave y cariñosa  
que acaricia a nuestro pueblo.

La brisa se infiltraba en los bosques  
a los enamorados mecía  
y así fue creciendo la brisa  
hasta que un día se marchó  
y dejó a los vascos su fresco recuerdo  
recuerdo de primavera.

Y tal como es el viento y la brisa  
y como son todos los aires del mundo  
así es el pueblo vasco.  
Es como un murmullo  
como un huracán violento  
es como la hierba despeinada por la brisa.  
En el valle vasco  
los vientos malos y buenos  
acarician y azotan  
así es el pueblo vasco.

Juan Foo. Coira ( 14 años )

## GURE HERRIA

Eguzki eder bat  
ikusi nuen  
zeru goi goienean.

Bera bakarra  
bakarra zegoen  
izar gustien tartean.

Iñork ez zuen maite  
bera beti amorrufan  
bere edertasuna urritzen  
zazpi hertzetako Izar hartan.

Baina behin ere ez zen makurtu  
bera beti ausartu

Eta horrela lortuko dugu  
gure zazpi hertzetako Izarra  
behin ere ez makurtu!!!

Anaia Alberro ( 12 urte )

## EGUZKIA, ZUHAITZA ETA TXIMELETA

Bein baten zegoen zuhaitz bat lore eta osto polit batzuk zeukala, baina ez zuen nahi loreak eta ostoak iñork ikuitzea edo harrapatzea bestela aserretuko zen. Baina pinpilinpauxak badakizute, lore tartean egoten direla.




Egun batean pinpilinpauxa batek, nola ez zekien zuhaitz haren borondatea, baina bai zuhaitz hartan loreak zegoztela, pentsatu zuen bere ostoa tartean jolastu. Halako batean, zuhaitzak ikusten duenean zaplasteko bat emanda pinpilinpauxa lurrera bota du eta esaten dio: Etortzen bazera berriro nere lore eta ostoa puzkatzera urrengoan okerrago izango da. Eta orduan pinpilinpauxa gaixoa, joan zen bere etxera oso triste.

Eguzkiak nola ikusi zuen dena, honela esan zion zuhaitzari: Pinpilinpauzak ez dizkizu loreak eta ostoa puzkatzen, horregatik zuk utzi behar diozu. Hori esanda joan zen eguzkia eta zuhaitzak pentsatu zuen: Ba nik, zergatik egin behar diot honi kaso?

Egun hartan pinpilinpauxa joan zen eguzkia ikustera, bere iritzia eskatzera: ¿Zer moduz pinpilinpauxa?. Esan zion eguzkiak. ¿Zer nahi duzu? Ba... lehenago, goizean joan naiz guztiok lore polit asko dituela esaten duten zuhaitz hartara. Eguzkiak ez zion segitzen utzi eta esan zion: Bai ikusi nuen gertatu zena, zu joan etxera eta egon trankil, nik zuzenduko dut dena. Ala, joan etxera!

Zuhaitzen loreak eta ostoa ura behar zuten eta euria egin behar zuen; baina hori eguzkiak aukeratu behar zuen, horregatik zuhaitza oso triste zegoen. Eguzkiak bazekien hori eta orduan esaten dio: Euria emango dizut, zuk pinpilinpauxari uzten baldin badiozu zure lore tartean jolasten. Holaxe eguzkiari esker zuhaitzak ikasi zuen lezioa, eta egun horretatik aurrera oso ona izan zen pinpilinpauxa gustiekin.



Paula Jauregi ( 3 urte )

